




# BIHAR ERE AZTERKETAK DITUGU

Doinua: Lagundurikan danoi I

Neurria: Bost puntuko txikia (ip) / Hamarreko txikia (hg)



Xan Alkhat

- 1** Ikastea baitugu ikasleek **lege** hortan gabiltz karraskan erne bezain **trebe** azterketek gainera baitute **botere** atzo bat baginuen gaintzeko **xede** gaur bi baginituen eta bihar **ere!**
- 2** Historia, Fisika edota **Euskara** azterketekin goaz hona eta **hara** ez tronpatu nahiak dakar hainbat **traba** ta galdegina dena ezartzen ez **bada** orduan guhaur goaz peko **errekara**.
- 3** Azterketek hainbeste jakitate **neurtzen** dituzte bainan ez dut hain untsa **ulertzen** emozioek dute ikaslea **lehertzen** eta ahanzten badu ikasia **zer zen** orduan azterketek zer dute **aztertzen?**
- 4** Zerbait gehiago baita ikasleen **bizia** huts egitea ez da berez **itsusia** azterketekin dugu argi **ikusia** ezin direla izan ikasleen **auzia** ez baitute islatzen dakigun **guzia!**

